

## EITBko LABek ez du ulertzen EITB kolokan jartzen duen kudeaketa bat arau-hauste penala ez izatea

**Arau-hauste administratiboa** eman zen, Ortuzarren taldeak abiatutako kudeaketa ereduak **arriku handian jarri ahal izan zuen** komunikabide publikoa, eta **legean hutsune kezkarriak** antzematen dira.

### Aurrekariak:

Andoni Ortuzarrek EITBko Zuzendari Nagusia zelarik Juan Diego Casals izendatu zuen Zuzendari Kudeatzailetzat, eta 2009an ardura honetan jarraitzen zuelarik 700.000€ko kreditu baten abal bat sinatu zuen EITBren izenean VILAU Media S.L. enpresarentzat. Enpresa honetan nagusiki EITBren kapitala zegoen, eta Administrazio Kontseiluan EITBko kideak ere baziren, aipatutako Juan Diego tartean. Enpresa gaizki zioanean kreditua eman zuen BBKk abala exekutatzeari agindu zuen, eta honek EITBn abalatutako 700.000€ guztiak ordaindu behar izan zituen.

Eragiketa kaltegarri honek hainbat programa parrilatik kentzearekin kontratuak ere bertan behera gelditzea suposatu zuela eta, LAB sindikatuak Juan Diegoren aurka kereila bikoitza jartzea erabaki zuen: **diru publikoen erabilera maltzurra eta delitu sozietarioa**. Bilboko epaitegi batek iazko otsailean tramitera onartu zuen.

Horrela, LABek aste honetan jaso du epaitegiaren erabakia, zeinaren arabera **kereilaren lehen zatia "probisionalki" eta bigarrena "libre" artxibatu behar omen dira**. Zerbitzu juridikoek helegitea jartzea erabakitzen duten bitartean, hauxe da EITBko LABek egiten duen egoera berriaren lehen irakurketa:

### Autoaren edukia:

Bat: Gaiak eta epaiak dakarren ingeniarietza juridikoan murgildu gabe, EITBren izaera "eskubide pribatuko ente publikoa" delarik, ez omen da sartzen Kode Penalak "delitu sozietarioa" zehazterakoan aipatzen duen "sozietatearen" definizioan.

Bi: Diruari EITBk duen funtzio publikoa ez den bestelako erabilera emateari buruz, soilik "arau-hauste administratiboa" izan daitekeela dio, izan ere figura deliktibo hori 1995ean kode penaletik kendu egin zen. Bestetik ere, abalatutako kredituaren helburua EITBren sorrera legea, eta orduko plan estrategiko eta kontratu programaren helburuen artean sar daitekeela esaten da.

Hiru: Juan Diegok ez zuela kudeaketa hau bere burua aberasteko erabili. Halere, hau ez da LABek salatzen zuena. Badirudi gehiago kereilatutako bere defentsarako erabili zuen dokumentazioaren oinarria izan zelako argitu nahi dela (gure ustez «excusatio non petita» gehiegi zegoela).

Halere, egoera askoz ere larriagoa izan zitekeela ohartarazten da autoan. Izan ere, ez zela eragiketa bakarra izan ziurtatzen da, eta «*arautegi normatibo mugarik gabe, aurretiko kontrolerako tresnarik gabe (txosten ez-lotesleak kenduta) entea beraren funtzionamendua arriskuan jar zitekeela*». Eta «*dirua funtzio publikotik kanpo ez dauden helburuetarako, baina aurreikusitakoak ez daudenetarako erabiltzea ez da arau-hauste penala, administratiboa baizik*».

## Ondorioak:

Bat: Kode Penalaren barruan sartzen den ala ez oraindik erabat garbi gelditu gabe (helegitearekin argiago geldituko zen), argi dago **arau-hauste administratiboa bai eman dela**.

Bi: Kudeaketa eredu negargarri honek **arrisku handian jarri ahal izan zuela komunikabide publikoa**, dagoeneko eman ziren kalteak baino larriagoak eman zitezkeen. Eusko Jaurlaritzak urrezko Q batekin saritu zuen kudeaketa eredu honen inguruan aipatzekoa da VILAU bezala sortutako enpresetako zuzendarien sariak ente publikokoak baino askoz handiagoak zirela, langileen baldintzak penagarriak diren bitartean.

Hiru: **Arau normatibo eta legegileetan hutsune handiegiak daudela** zerbitzu publiko baten kudeaketa garden bat egin ahal izateko. Horrela, EITBk historikoki muzin egin die Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosten "ez-loteslei", antzemanten dituen irregulartasunak behin eta berriro errepikatzen dituelako kontratazioen alorrean batipat. Azken bi urteetan ere garbi gelditu da oraingo Zuzendaritzarentzat zein den Administrazio Kontseiluaren benetako funtzioa, aurrekontuak eta plantilak organu honek onartu behar dituela lege sahiesgarri batek zehazten duenean.

Euskal Herrian, 2014ko urtarrilaren 14an

## LAB de EITB no entiende que una gestión que pone en riesgo a EITB no sea una infracción penal

Se dio una infracción administrativa, el modelo de gestión iniciado por el equipo de Ortuzar pudo poner en grave riesgo al medio público, y se aprecian vacíos preocupantes en las leyes.

### Antecedentes:

Siendo Andoni Ortuzar Director General de EITB nombró a Juan Diego Casals como Director Gerente, y siguiendo en esta responsabilidad en 2009 firmó en nombre de EITB un aval de 700.000€ para un crédito para la empresa VILAU Media S.L. Esta empresa estaba constituida con capital principalmente de EITB, y en el Consejo de Administración participaban también miembros de EITB, entre ellos el mencionado Juan Diego. Cuando la empresa empezó a ir mal BBK, que fue quien concedió el crédito ordenó la ejecución del aval, lo que supuso que EITB tuviera que abonar todos los 700.000€.

Esta mala operación trajo como consecuencia la desaparición de programas de la parrilla y disminución en la contratación, por lo que el sindicato LAB decidió poner una doble querrela contra Juan Diego: **malversación de fondos públicos y delito societario**. Un juzgado de Bilbo la admitió en febrero del año pasado.

Así, LAB ha recibido esta semana la decisión judicial, mediante la cual por lo visto en el **primer supuesto «debe ser decretado el sobreseimiento provisional» y en el segundo el «sobreseimiento libre»**. Mientras los servicios jurídicos deciden la interposición de recurso, esta es una primera lectura de LAB de EITB sobre la nueva situación:

### Contenido del auto:

Uno: Sin adentrarnos en la ingeniería jurídica que emana del tema y el auto, siendo EITB un "ente público de derecho privado", parece ser que no coincide con ninguna categoría de la definición de "sociedad" que especifica el Código

Penal al referirse al "delito societario".

Dos: Sobre la utilización para otros fines ajenos a la función pública de EITB, afirma que sólo puede considerarse como "infracción administrativa", al haber desaparecido esa figura delictiva del Código Penal en 1995. Por otra parte se dice que el fin del crédito avalado puede entrar dentro de los objetivos de la ley de creación de EITB, y el plan estratégico y contrato programa de entonces.

Tres: Que Juan Diego «no se apropió» para lucrarse personalmente. No obstante no era esto lo que denunciaba LAB. Más parece pretender aclararlo, puesto que era la base de la documentación que presentó el querellado para su defensa (a nuestro parecer, había demasiada «excusatio non petita»).

Sin embargo, en el auto se avisa de que la situación podría haber sido mucho más grave. Se asegura que no fue la única operación o que podía haber sido de un importe mayor, y que *«sin límite alguno de carácter normativo, ni instrumento de control previo, que se reconozca (aparte informes no vinculantes), podría incluso ponerse en riesgo el funcionamiento del propio organismo»* (EITB). Y que *«la aplicación de fondos a destinos no ajenos a la función pública, pero distintos a los previstos, no constituye una infracción penal, sino administrativa»*.

### Conclusiones:

Una: Si bien aún no está meridianamente claro si entra o no dentro del Código Penal (se aclararía más con el recurso), se evidencia que **sí se ha producido una infracción administrativa.**

Dos: Este lamentable modelo de gestión **ha podido poner en grave riesgo al medio público**, se podrían haber producido perjuicios aún más graves de los que se dieron. Respecto a este modelo de gestión reconocida por el Gobierno Vasco con una Q de oro cabe mencionar que las retribuciones de las direcciones de las empresas surgidas como VILAU eran muy superiores a las del ente público, mientras las condiciones de las plantillas son penosas.

Tres: **Que hay vacíos demasiado grandes en las normas y leyes** para poder llevar a cabo una gestión transparente en un servicio público. De este modo EITB históricamente se ha saltado los informes "no vinculantes" del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, repitiendo una y otra vez las mismas irregularidades que suele detectar sobre todo en el ámbito de las contrataciones. Estos dos últimos años también ha quedado clara para la actual Dirección cuál es la función del Consejo de Administración, puesto que es este órgano quien debe aprobar los presupuestos y las plantillas según una ley que se esquiva fácil.